

ELGARREKIN, HONDAKINEN GEROA ERAIKI DEZAGUN !

**LA CROIX DES BOUQUETS
HONDAKIN GELDOEN
METATZE ETA BALIOZTATZE ZENTROA**

HONDAKIN GELDOAK

La croix des Bouquets
64122 URRUÑA


**bil ta
garbi**

Syndicat Mixte pour le
Traitement des Déchets
Ménagers et Assimilés




XEDEA NON KOKATZEN DA ?

Hondakin geldoen metatze eta balioztatze gunea, Urruña zentroaren hego-mendebaldeetik 3.5 km-tan da, « croix des Bouquets » deitu gunean. 810 bide departamentalaren luzaran.



Eremuak 8.4 hektara ditu. Horietarik 6ha metatze gunearendako dira.

8,4 ha



ZER EGINEN DA HOR ?

Hondakin geldoak xehatuko eta bahetuko dira birziklatzeko

- Hilabetean egun batez, hondakinak xehatuko dira, egunaz.
- 200 kW et 500 kWeko indarra gehienetik

Hondakin geldoen metatze gunea

- Tratatzeko kapazitatea : 72000 tona urtean - 40 000m³/urtean
- Iraulpena : 10 urte

Banan beste, 10 kamioi pasatuko dira egunean - RD810 bideko trafikoaren%1a.



ZER DIRA HONDAKIN GELDOAK ?

%90a baino gehiago, **obra publikoen** hondarrak dira. Gaineratekoak, **eraikuntzakoak** (enpresa eta partikularrenak).

Ingurumen kodearen arabera, hondakin geldoa hau da : « itxura, kimika eta biologiko aldaketarik jasaiten ez duen hondakina, usteltzen ez den hondakina, erretzen ez den hondakina, erreakzio kimiko eta biologikorik sortzen ez duen hondakina, biodegradablea ez den hondakina, eta hunkitzen dituen beste ekaiak andeatzen ez dituen hondakina – hau kaltegarria litaikelarik jendarte eta ingurumenarendako ».

Hondakinen legezko sailkatzearen arabera, hondakin geldoak, **lanjerik gabeko hondakinen** azpi kategoria bat da.

Hondakin geldoak, hondakin mineralak dira nagusiki - eraikuntza lanetako hondakinak (etxegintza, obra publiko, eraikuntzarako fabrikazio ekoizpen hondakinak), hala nola :

- Harri hondar, betoi, adreilu, teila, zeramika, lauza, berina, muldrun, lur et harri (laborantzakoak ez diren lur metak).

Mineralak izanik ere, igeltsu, beira zuntz eta arroka hondakinak ez dira hondakin geldo sailkatuak. Ondorioz, ez dira onartuak izanen.



ZER DA HONDAKIN GELDOEN METATZE ETA BALIOZTATZE ZENTROA ?

Urruñako La Croix des Bouquets xedeak bi aktibitate izanen ditu :

Hondakin geldoen **BALIOZTATZEA**. Hauek, xehatuak eta bahetuak izanen dira, eraikuntza edo obra publikoetan bererabiliak izateko ondotik.

Guneak, Ingurumenaren Babesteko Izendatuak diren Guneen (ICPE) araudiak errespetatu behar ditu - 2015. puntuak dion bezala.

2015ko agorrilaren 17an energia garbiago baten garatzeko bozkatu trantsizio legeak manatzen du eraikuntza saileko hondakinen %70a balioztatua izan dadin. 2020an, hondakin horiek ekei bezala ekarriak izan beharko dute

Hondakin geldoen **METATZEA**, hortarako egokitua den gune batean egiten da (ISDI).

2014ko abenduaren 12ko dekretuaren ondorioz, 2015eko urtarrilaren 1az geroz, hondakin geldoen metatze guneak, Ingurumenaren Babesteko Izendatuak diren Gune (ICPE) ekarriak dira.

Sailkatuak diren instalazioen izendegian, 2760-3 tituluarekin grabatuak dira.

Ingurumenaren Babesteko Izendatuak diren Guneek (ICPE) zaintza berezi bat uken behar dute bai arduradunarenganik, baita Estadoko zerbitzuenganik.



ZENDAKO HONDAKIN GELDOEN METATZE ETA BALIOZTATZE ZENTROA URRUNAN ?

Lurraldean den inztalazio eskasari erantzuteko

Behar ekonomikoa

Departamenduko zerbitzuek egin ikerketaren arabera, « Eraikuntza eta Herri lanen hondakinen » balioztatze eta tratatzeko instalazio eskasa da. Egoera, bereziki Kostaldean, kezkarria da.

Ekonomikoki bizigarria izateko, hondakin geldoen tratatze eta balioztatze guneak, hondakinen ekoizpen gunetik 15 / 20 km-tan izan behar du – hortik goiti, garestiegi gelditzen da. Bideen lurkatzeko harrobietan hartzen den harri xehe tonak, 10 euro kostatu du.....harri xehe birziklatuak 4 eta 7 euroren artean kostatu du.

« La Croix des Bouquets » xedeak lekuko behar bati – bereziki Euskal Kostaldeko behar bati - erantzuten dio. Bil Ta Garbi Sindikatuak, hondakin geldoen kudeaketaz gogoeta bat eramatean du. Hunek balio izanen du Bil Ta Garbi estaltzen duen lurralde guzira.



Ingurumenaren beharrentzat

Gisa hortarako instalazio eskasak ingurumenarendako trabagarriak litaizken kezka sortarazten ahal ditu : hala nola, zikintegi basen garatzea.

Ez dira nahasi behar « zikintegi basak » eta « legez kanpo diren zikintegiak » - hauek direlarik ICPE baimena eskas duten instalazio profesionalak.

Legeak behartzen dituen arduraren hartze eta balioztatze helburuei ihardesteko

2015eko agorriaren 17an Garapen Berdearen aldeko Trantsizio Energetiko legea bozkatu zen. Huren 93garren artikulua dio eraikuntza saileko hondakinen %70a ekai gisa balioztatzea beharko dela 2020ean.

Lurralde berrantolatzearen ondorioz (Loi Notre), egin behar hori Eskualdeen gain gelditzen da orai – orai arte departamenduen gain zelarrik. Nouvelle Aquitaine Eskualdea, hondakinen prebentzio eta kudeaketaz gogozkatzen ari da ; hala nola, aldatuko ez diren eraikuntza saileko hondakinetaz. Helburua du, legeak finkatu helburuen lortzea lurralde osoan.

Frantzian, Eskualdeen arabera, berziklatzea %40 eta %50en arteko heinean da.



NOREK KUDEATUKO DU ?

Xedearen kudeaketa

Obralaria, Bil Ta Garbi Sindikatua izanen da. Xede eramailea da. Hunek ditu eraikuntza lanak ordainduko. Bil Ta Garbiren gain dira ere legeak behartzen dituen baimen guzien eskatzea (eraikitze permissa, baliatze baimenak, lurberritze baimenak....)

Egun guzietako kudeaketa

Bil Ta Garbi Sindikatuko hautetsiek egun guzietako kudeaketaren pribatu baten esku uztea erabaki dute. Legediak behartzen dituen araudiak errespetatu beharko dituzte. Manazaleak, errespetatu behar duen legediaren arabera, eskakizun gehigarriak egiten ahal dizkio. Hala nola adibidez, ingurumenarendako litaizken eraginen jarraipenak, seguritate sailean, arriskuen prebentzioan eta publikoari informazioa....



ZOIN DIRA HERRITARRENDAKO ARRISKUAK/MAKURRAK ?

Eramanen den aktibitateak ez du arriskurik ez herritarrendako, ez eta ingurumenarendako. Prefekturako zerbitzuek dute esplotazio baimena emaiten, inguruetako bizizaleendako balitaizken arrisku eta lanjeretaz egin ikerketak aztertu ondoren. Ikertzen da :

Harrabotsa

Harrabotsaren eraginak ikertu dira. 2012 eta 2015 urtetan egin lehen neurketek erakutsi zuten xedeak, legeak behartzen dituen arauak errespetatzen dituela. Lehen etxeak, eremutik 50 metroan dira. Geriza perimetro berezirik ez du behartzen.

RD810 bide departamentala, 10 metroan da, eta hondakin geldoen metatze gunea ere, eremu bazterretik 10 metroan da. Hondakinen balioztatze gunea berriz (xehatze eta bahetze gunea), hilabeteetan egun batez aktibitatean izanen da. Ondorioz harrabotsak ez du eragin handirik ukanen.

Maiz, lan egunez, harrabotsaz neurri hartzeak eginen dira. Ikertuko da holaz legeak eskatzen dituen arauak errespetatuak direnez, bereziki xehatze eta bahetze egunetan (hilabeteetan egun batez).

Errautsak/Hondakin airatzeak

Hor emanen diren hondakinak (harri hondarrak, lurra, harriak, adreiluak...) ez dira airatzen. Gisa hortako hondakinen metatze eta balioztatze zentroetan, hondakin arinen airatzerik ez da ikusten.

Haatik, hilabeteetan behin eginen den hondakinen xehatze eta bahetzeak aroaren arabera (haize, euri...) errautsa emaiten ahalko luke. Gunearen kokapenaren arabera, errauts guti baizik ez litaike eremutik kanpo hedatu behar. Gainera, xehatze eta bahetze lanak, eremuaren alde barnean egiten dira, hesietarik 20 metroan gutienetik.

Idorte egunez, kamioiek hartuko dituzten pistak urestatuko dira, errautsaren murgiltzeko. 10 bat kamioi pasatuko dira egunean. Langile bat izanen da gunea garbirik atxikitzeko.

Uraren kudeantza/ Ixuriak

Hondakin geldoen metatzeak ez du ixuri kaltegarrikerik eragiten. Euriak bustitzen dituen hondakinak, lanjerik gabeko hondakin bizigabeak dira. Ixuri lanjerosik ez da. Euri urak bilduak dira eremu guzian, eta urmaeletan emanak.

Azpimarratu behar da ere, zerbait gerta balitz, hidrokarburo eta ixuri zikinen biltzeko urmaeleta bereziak badiirela. Eremutik pasatzen den erreka osoki babestuko da, hodieta kurriaraziko baita eremuaren zeharkatzeko.

Legeak behartzen duen bezala, euri uren kalitatea zainduko da lekuan berean.

Usainak

Xedea da, hondakin geldoen metatze eta balioztatze gune baten eraikitzea. Ondorioz, usain arazorik ez litaike izan behar.



Bil Ta Garbi Sindikatua hondakinen gutitze, bereizte eta balioztatzearen alde lanean ari diren aktoreekin engaiatua da, 211 herri, 318 000az goiti herritarren hondakinen tratatzeko.

ELGARREKIN, HONDAKINEN GEROA ERAIKI DEZAGUN !



-  Etxe-hondakinak eramanak dira 
-  Etxe-hondakinak eramanak dira 
-  hondakin geldien biltze gunea
-  Hondakindegia
-  Berziklagarrien/etxe-hondakinen lekualdatzeko kaia
-  Lanjerosak ez diren hondakinen lurperatze zentro
-  Lurraldeko bereizte zentroa
-  Etxe-hondakinetan diren Organikoen Balioztatze Zentroa : konposta ekoizpena
-  Etxe-hondakinetan diren Organikoen Balioztatze Zentroa : konposta eta energia ekoizpena

Bere eremuan, Bil Ta Garbi Sindikatuak 198 000 tona hondakin baino gehiago kudeatzen du. 2018ko urtarilla 1az geroz, Sindikatuak « hondakin geldoen kudeatzeko eta tratatzeko » ardura du.
Bil Ta Garbiz xehetasun guziak : www.biltagarbi.fr